

## 7

### Ondorioak

Honaino heldu da gure lana. Hasieratik aitortu dugun bezala, zabalak izan dira bai lanerako erabili dugun ikuspegia bai lan eremua bera. Datu asko eta askotarikoak jaso ditugu, eta ez, jakina denez, sistema bat eta bakarrekoak, guztiak euskararenak izan arren. Horrek, dudarik gabe, zaildu egingen du gaian gaiko hurbilketa. Nolanahi ere den, gure lanaren ildo nagusiak erraz bereiz daitezkeela uste dugu, eta xehetasun handiko ikerketa izanagatik ere, oinarritzko proposamen zehatzak ulertuko direlakoan gaude. Lanak izango du zer hobetu. Dena den, guretzat hau egitasmo osoago baten lehen urratsa baino ez denez, izango dugu berriro lan honetako ikergaietara itzultzeko parada, hipotesiak berrikusiz eta, adibidez, sintaxiaren lantresnez beraztertuz.

